

Dalaid Anant

EUSKARA TEKNIKARIA

## Lasai, motel, gu ere zahartuko gaituk!

**M**endealde Kultura Elkartek eskatuta Arturo Elosegik idatzitako artikulu mamitsu bezain interesgarri batean, honelaxe dio, hitzez hitz: “Gaztetxo ginela, maiz horren inguruan solasean aritzen ginen lagunak, alegia, zaharrek guk baino askoz hobeki zekitela euskaraz. Sekula ez zait ahaztuko Ariñaldeko Joxefek behin botatakoa: Lasai motel, gu ere zahartuko gaituk”.

Tradizioa asko aldatzen ez bada behintzat, ziur naiz 50 urte barru gaurko hiztun “baldar” eta “trakets” asko hiztun bikain eta eredu-garri bihurtuko dela. Izan ere, gaur egun nonahi eta noiznahi entzun dezakegun ditzosozko esaldi hori, zaharrek askoz hobeki hitz egiten dutelako hori, duela 100 urte ere entzuten zen. Badira horren lekukotasunak.

Hain ongi errotutako ideia horrek baditu, nire ustez, bi osagai gutxienez. Alde batetik, ebidentzia bat: jende gazte asko ezinean eta arrastaka aritzen da euskaraz, egoera soziolinguistikoko jakin batean gauzatu-tako ezagutza, erabilera eta motibazioaren ondorioz. Eta bestetik, joera orokor baten isla: gauzak idealizatzeko joera indartsu samarra dugula esanen nuke, eta gure zaharren hizkerarekin ere halaxe egiten dugu.



KARLOS CORBELLA


Bi elementu horiei, ordea, ñabarduraren bat egin beharko litzaiekeela uste dut. Alde batetik, gazteen hizkera baldar eta pobretzat hartzen den oro ez da nahitaez hala hartu behar. Gazteen behar komunikatibo guztiak ongi samar aseko dituen hizkeran, esaterako, gaur “bekatutzat” eta bihar “normaltzat” hartuko ditugun formak sortu eta ager litezke. “Buatxabal”, batek daki, agian esamolde jator eta indartsua izanen da berrogei urte barru. Bestalde, adinekoen artean hiztun bikainak badaudela ezin uka, hiztun traketsak ere badaudela ezin uka dezakegun bezalaxe. Denetik dugu, espero litekeen moduan.

Konparaketa egiteko adineko pertsona euskaldun ia-elebakarrrak eta ama-hizkuntza gaztelania duten erdal-alebiden gazteak hartuz gero, jakina, aldea bistakoa da, handia oso. Belaunaldien arteko hizkeraren edo hizkuntza-kalitatearen —hala esan nahi badiogu— konparaketa, ordea, ikuspegi osoago batekin egin behar dela uste dut. Adin-talde bakoitzean dauden hiztun-tipo guztiak kontuan hartuz, hizkera berritzea eta hizkera pobretzea eta baldartzea sinonimo bihurtu gabe, eta, batez ere, hizkeraren aldakortasunaren arrazoiak ulertuz eta haietan eragiten saiatuz. ■

«  
Gauzak idealizatzeko joera indartsu samarra dugula esanen nuke, eta gure zaharren hizkerarekin ere halaxe egiten dugu  
»

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Urte ikusi gabea, Hondarribiatik barrena nembilela topo egin nuen.

Ezaguna egin zitzaidan arren, kostata kokatu nuen nire buruan garai bateko kidea. Berari ere berdintsu gertatuko zitzaion, horrelakoetan minutua telebistetako iragarkiak baino luzeagoa gertatzen baita. Ahotsen koloreek bideratzen gintuzten eta arrapaladan etorri zitzaizkigun elkarrekin bizitakoak buruetara, ondoko taberna hipnosi. Kafearen inguruan ekin genion elkarren berri emateari. Ama Guadalupekoaren Kontxarako sailkapenera egin genuen jauzi. Hirugarren gipuzkoarra, laugarrenari txartela udaletxean ematen baitiote sari. Pozik. Bez-

## Hogei bat

peran izan omen zuten Alarderako entsaioa. Atabalaz ari omen da. Ezin omen du Jaizkibel Konpainiarena jasan, herriaren aurkako probokaziotzat du, aspaldiko lagunekin haserretzeko motiboa. Gozo-gozoan saiatu nintzen nirea adierazten. Hi ere hola, Lamarcarekin ados? Ez nintzen luzatu bere Konpainian dabilzan atabalari eta gainera-koen klasea aipatzen, nik ere haiek bezala txipiroiak gustukoak ditudala esaten, horrek ez duela Alardean parterik adierazten, hain fundamentu eskaseko ziriari ez niolako gai bigunik eman nahi. Argi da, garai bateko helburu urrunek baino egunerokoek elkarrengandik urrundu gaituztela denbora luzerako. Eta hori beste hogei bat urtez bizi bagara. ■